

Año LII. urtea

130 - 2020

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

*Hebetic ioan gabe ene
buruya: zenbait gogoeta
buru hitzaren erabilera
anaforikoen eta
bihurkarien diakroniaz*

Iker SALABERRI IZKO

Hebetic ioan gabe ene buruya: zenbait gogoeta *buru* hitzaren erabilera anaforikoen eta bihurkarien diakroniaz

Hebetic ioan gabe ene buruya: algunas consideraciones sobre la diacronía de los usos anafóricos y reflexivos de *buru*

Hebetic ioan gabe ene buruya: some thoughts concerning the diachrony of anaphoric and reflexive uses of *buru*

Iker SALABERRI IZKO

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ikersalaberri@gmail.com

<https://orcid.org/0000-0003-3859-4011>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv.130.4>

Artikulu honek Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak diruz zuzkitzen duen *Diacronía de la animacidad: aproximación tipológica al origen de las marcas animadas* ikerketa proiektuaren sostengua du (PGC2018-098995-B-I00). Lanaren lehenbiziko bertsio bat Aziti Bihia Hizkuntzalari eta Filologoek Elkarteak 2020ko martxoaren 25ean antolatu *Etxeti Biblia: Hizkuntzalaritza eta Filologia berrogeialdian* jardunaldian aurkeztu zen. Egileak jardunaldiko parte hartzaileei, batez ere Iraide Ibarretxe-Antuñanori, beren oharrengatik eskerrak eman nahi dizkie. Patxi Salaberri Zaratiegiri ere esker anitz zor dizkiot, artikulua gainean egindako iruzkin eta zuzenketa guztiengatik. Azkenik, lana errebisatu duten bi aztertzaile anonimori eskerrak eman nahi dizkiet, beren ohar erabilgarriengatik. Geldi litekeen edozein akats edo gabezia egilearen erantzukizun hutsa da.

Jasotze data: 2020/05/29. Behin-behineko onartze data: 2020/09/29. Behin betiko onartze data: 2020/10/08.

LABURPENA

Lan honetan euskarazko *buru*-egitura bihurkariaren sorrerak kanpoko eta barneko zergatiak dituela argudiatzen da: alde batetik, Erdi Aroko latinarekiko ukipenaren ondorioz sortu zela proposatzen da, errepikapen gramatikalizazioa delako mekanismoaren bidez. Hipotesi honen arabera, prozesuaren iturria Erdi Aroko latinean ediren daitezkeen *caput* hitzaren erabilera anaforikoetan eta bihurkarietan bilatu beharra dago. Bertze aldetik, *buru* hitzak zentzu berria hedapen semantikoaren ondorioz, hau da, metonimiaz garatu zuela iradokitzen da. Proposamen hauek euskararen historia-rako eta berreraiketarako dituzketen ondorioak ere eztabaidatzen dira.

Gako hitzak: bihurkaritasuna; errepikapen gramatikalizazioa; Erdi Aroko latina; hedapen semantikoa; euskararen historia.

RESUMEN

Este estudio aboga por una motivación tanto externa como interna del surgimiento de la construcción reflexiva vasca basada en la palabra *buru*: por una parte, se sugiere que la construcción reflexiva nació del contacto con el latín medieval, a través del mecanismo conocido como gramaticalización replicativa. Según esta hipótesis, el origen del proceso se encuentra en los usos anafóricos y reflexivos de la palabra *caput* en el latín medieval. Por otra parte, se propone que *buru* desarrolló nuevos significados como resultado de la extensión semántica, es decir, de la metonimia. Se analizan asimismo las consecuencias que estas propuestas tendrían para la historia y reconstrucción del euskera.

Palabras clave: reflexividad; gramaticalización replicativa; latín medieval; extensión semántica; historia del euskera.

ABSTRACT

This study argues for an external as well as internal motivation for the advent of the reflexive *buru*-construction in Basque: on the one hand, it is proposed that the Basque reflexive *buru*-construction arose by virtue of contact with medieval Latin, by means of the mechanism known as replica grammaticalization. According to this hypothesis, the process was triggered by anaphoric and reflexive uses of the word *caput* in medieval Latin. On the other hand, the word *buru* is argued to have developed new meaning as a result of semantic extension, that is to say, of metonymy. The potential implications are also addressed which these proposals may have for the history and reconstruction of Basque.

Keywords: Reflexivity; replica grammaticalization; medieval Latin; semantic extension; history of Basque.

1. SARRERA. 1.1. Euskarazko bihurkariak ikuspegi tipologikoan. 1.2. Egitura bihurkariak latinaren historian. 1.3. Bihurkariak, ukipena, gramatikalizazioa eta errepikapen gramatikalizazioa. 2. ERDI AROKO LATINEKO DATUAK EUSKARAREN ARGITAN. 3. BURU-BIHURKARIAK ETA ALDAKETA SEMANTIKOA. 4. EUSKARAZKO EGITURA BIHURKARIEN HISTORIAZ ETA AITZIN-HISTORIAZ. 5. ERDI AROKO EUSKAL EREMUKO EGOERA SOZIO-LINGUISTIKOAZ. 6. ONDORIOAK. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Euskararen aitzin-historia berreraikitzeke orduan, ahaide ezagunik (izan) ez duen hizkuntza genetikoki bakartua izanik, bi baliabide nagusi ditu eskura ikertzaileak: barne-berreraiketa eta alderapen tipologikoa (Lakarra, 2005, 408. or.; Mitxelena, 1963, 16-17. or.). Lan honetan bi metodoak bateratzen dituen hurbilpena egiten da, euskararen ezaugarri gramatikal baten (*buru* hitzean oinarritutako egitura bihurkariaren) lekukotzeen aitzineko garaia berreraikitzeke. Xede hau kontuan izanik, 1.1 atalean euskarazko bihurkaritasuna adierazteke baliabideei ikuspegi tipologikoaren barnean so egiten zaie; 1.2 atalean, berriz, latinaren historiako bihurkariak labur azaltzen dira, eta 1.3 atalean bihurkari marken gramatikalizazio bidea zehazten da. 2. atalean euskarazko *buru*-bihurkariak Erdi Aroko latinean dituzkeen zenbait iturri eztabaidatutakoan, 3. atalean lan honetako proposamenak semantikaren ikuspuntutik izan dezakeen azalpena erakusten da. Ondoren, ikerketa honek euskararen historiarako dituzkeen ondorenak aurkezten dira 4. atalean, eta 5.ean lan honetako proposamenari funts soziolinguistikoa emateke saiakera egiten da. Seigarren atalean, azkenik, ondorioak ateratzen dira.

1.1. Euskarazko bihurkariak ikuspegi tipologikoan

Euskaltzaindiak (1991, 62. or.) bihurkaritasuna honela definitzen du: perpaus berreko aditz berak bi izen sintagma adierazten dituenetan eta hauek erreferentziakideak direnean, hots, izaki bera aipatzen dutenean, bihurkaritasunaz ari garela erran daiteke. Erreferentziakideak diren bi sintagma horietako batek normalean bizidun eragilea adierazten du, eta bertzeak jasailea; gainera, lehenbizi datorrenari *aurrekaria*

deitu ohi zaio, eta bigarrenari *bihurkari marka* (Faltz, 1977, 3-4. or.). Horrela bada, *Jonek bere burua ebaki du* esaldian, aurrekaria *Jonek* da eta *bere burua* bihurkari marka.

Munduko hizkuntzen artean bihurkari markak aditezkoak izan ohi dira, hots, hizkiak, adizlagunak edo aditz jokabidea erabiliz adierazten direnak, edota izenezkoak, hau da, izenen eta izenordainen bitartez bideratzen direnak (Lehmann, 2015, 45-52. or.). Bigarren multzoari erreparatuz gero, hiru talde nagusi daude: (a) izen edo izen sintagma balioa duten bihurkariak; (b) izenordain balioa dutenak; eta (c) bihurkari atxikiak, izenordaina eta bertzelako osagai bat dituztenak (König, 2007, 106-107. or.). Schladten (2000) ikerketa tipologikoaren arabera, munduko hizkuntza gehienek (140/150, % 93,3) izenean edo izenordainean dute bihurkari markaren jatorria. Egitura bihurkarion izenezko edo izenordainezko iturri etimologikoa, gainera, eskuarki (89/150, % 60,1) *gorputz*, *buru*, *larru*, *hezur* edo antzeko *gorputz*-atal izena (GAiA) izaten da. Hauetatik *buru* GAiAean oinarritutako egitura bihurkaria dutenak zenbait eremu geografikotara daude mugatuta, eta, oro har, ez dira anitz (77/950, % 8,1) (Evseeva & Salaberri, 2018, 395. or.).

Euskara, beraz, horrelako egitura bihurkaria duen Europako hizkuntza bakane-takoa da. Antzekoak edireteko, gure kontinentean, hungarierara jo beharra dago: izenordain bihurkaritzat erabiltzen den *mag*- erroak etorkiz *gorputza*, *soina* erranahia du, egun *hazia*, *bihia* (Szent-Iványi, 1964, 64. or.). Bertzela, Ural mendikatearen hego-mendebaldean (erzyan eta mokshan), Kaukason (abkaziera-adige hizkuntzetan eta georgieran) edota ipar Afrikan (amazigeran eta berbereraren bertzelako aldaeretan, Marokoko arabieran) kausi daitezke etimologiaz *buru* erranahia duten izenordain bihurkariak (Evseeva & Salaberri, 2018). Zentzu honetan, beraz, euskara mendebaldeko europar hizkuntzen artean berezi antza dela erran daiteke. Ohar hori garrantzitsua da: alde batetik, euskarazko *buru*-bihurkariak joera tipologiko unibertsalen emaitza izateko aukera ez du ezeztatzen, baina, bertzetik, murriztu behintzat egiten du. Bertze modu batera adierazita, euskararena munduko hizkuntzetako joera tipologikoen isla dateke, baina mendebaldeko European horren ezaugarri ezohikoa izateak bertzelako azalpena bilatzera bultzatzen du. Gai honi 1.2., 2. eta 3. ataletan helduko zaio berriz.

Zernahi ere den, *buru* elean oinarritu egitura (1a) ez da euskarak bihurkaritasuna adierazteko daukan baliabide bakarra: anitzetan xede bera iragankorra izan ohi den aditza iragangaiztearen bidez, hau da, osagarri zuzena adierazteari utziaz lor daiteke (1b), eta hau, hortaz, aditezko estrategia dela erran daiteke¹. Honetaz landa, zehar osagarria kasu guti batzuetan bere horretan utz daiteke (i) aldi berean subjektuaren

1 Haatik, *buru*-bihurkaria eta iragangaiztea ez dira baliokideak: estrategia baten eta bertzearen arteko aukera hainbat faktorek baldintzatzen dute eta, oro har, iragangaiztea aukera mugatuagoa da, ez baita aditz guztiekin erabiltzen ahal. Ikus, euskarazko kontu honi begira, Etxepare (2003, 380-385. or.) eta Salaberri Izko (2020, 8-12. or.). Desberdintasun honen arrazoi tipologiko-unibertsalez ikus, bertze batzuen artean, Haiman (1983), König & Siemund (2000, 60-61. or.), Kazenin (2001, 926. or.), König & Vezzosi (2004), Ariel (2008, 229. or.) eta Haspelmath (2008).

erreferentziakidea eta pertsona izenordaina bada, eta (ii) destinatibo marka badarama (1c)². Hau, beraz, izenordainezko estrategia da:

- (1) a. gizon hark bere burua hil nahi zuen
- b. (*)ispiluan gaizki ikusten naiz
- c. ardo hau beretako gorde nahi du

Kazeninek (2001, 926. or.) dioenez, munduko hizkuntzek bihurkaritasuna adierazteko baliabide bakarra (izenezkoa) izan ohi dute, edo bi (izenezkoa eta aditezkoa). Oro har, beraz, eredu tipologiko hedatuena gehienez ere bi estrategia bihurkari ukaitea da, eta hau baino gehiago dituzten hizkuntzak gutitan kausitzen dira (Haspelmath, 2008, 47. or.). Euskara, berriz ere, alderdi honetatik berezikara da, ez hainbertze mundu mailan, baina bai inguruko hizkuntzen aldean.

Atal honi bukaera emateko, aipatu beharra da hiru estrategia bihurkari hauen (1a-c) egoera ez dela egonkorra, ez aldaezina: testu zaharretan ikus daitekeen moduan, euskararen historian zehar hainbat garapen jasan dituzte (Evseeva & Salaberri, 2018, 397-403. or.; Mounole, 2011, 147, 270. or.; Salaberri Izko, 2020)³. Honetaz hirugarren atalean mintzo gara berriz.

1.2. Egitura bihurkariak latinaren historian

Jakina denez, euskara, mende guti iraun zuten germaniar eta arabiar eraginak salbu, azken mila eta bortzehun urteetan latin-erromantzeekin ukipen egoera heretsian egon da (Mitxelena, 1964). Ondorioz, euskarak gramatikaren maila ia guztietan, hiztegiaren batez ere, hizkuntza horien eragin nabaria jasan du. Lan honetako ildoari jarraituz, hortaz, zentzuzkoa litzateke aipatu hizkuntzek historian gaindi izan dituzten bihurkaritasuna adierazteko baliabideei so egitea. Kontu honi begira erromantze zaharrak ikertzea interesgarria eta beharrezkoa bada ere, hemen latina eta euskara bakarrik ditugu aztergai. Erromantzeetako bihurkaritasunaren auziaz gehiago jakiteko eta, oro har, hizkuntza hauek euskarazko *buru*-egitura bihurkariaren iturria diratekeelako ustea baztertzeko arrazoiengatik inguruan ikus Salaberri Izko (2019).

Latin klasikoan eta arruntean *mē(d)*, *tē(d)*, *nōs* moduko pertsona izenordainak erabiltzen ziren lehen eta bigarren pertsonen bihurkaritasuna adierazteko (Väänänen, 1967, 199-200. or.). Hirugarren pertsonan, berriz, eta salbuespenak salbuespen, mendebaldeko indoeuropar hizkuntza gehienek jatorri ilunekoa den **se-/s(e)we-* izenordain bihurkaria dute baliabide nagusitako, zein, gainera, diakronikoki nahiko egonkorra

2 Azkeneko hauei De Rijk (2008, 365. or.) *bihurkari ahulak* deitzen die, *buru*-egiturak (*bihurkari indartsuak*) ez bezala berariazko forma bihurkaririk ez dutelako.

3 Gai honekin lotuta egin daitekeen galdera euskarak hiru estrategia bihurkari bereizteko arrazoiarena da. Kontu hori lan honen irismenetik at badago ere, garbi dago ikerketa gehiago behar duela. Zenbait xehetasun Bottineau & Roullandek (2007, 211. or.), Oihartzabal & Etxeparek (2011) eta Evseeva & Salaberrik (2018, 401-403. or.) eztabaidatzen dituzte.

baita (Puddu, 2005; Viti, 2009). Latina ez da salbuespen, **se-/s(e)we-* izenordainaren ondorengoak baititu historian zehar (2a-c, Nunn, 1922, 154. or.; Puddu, 2005, 76. or.; Weiss, 2009, 332. or.):

- (2) a. *amābo, accurrite, ne se interēmat*
 love.1SG.FUT rush.2PL.IPFV NEG REFL kill.3SG.PRS.SBJV
 'Maitea, erregu egiten dizut, joan azkar, ez dezan bere burua hil'
 (Plautusen *Cistellaria*, 643, ca. K. a. II. mendea)⁴
- b. *haec ergō dum aguntur facit se*
 these then while do.3PL.PASS make.3SG.PRS REFL
hōra quinta
 hour fifth
 'Kontu hauek egiten diren bitartean, borzgarren ordua badator (borzgarren orduak bere burua egiten du)' (Egeriaren *Itinerarium*, 27.3, ca. K. o. IV. mendea)
- c. *laetetur in te servus*
 be.happy.3SG.SBJV.PASS in 2SG serf
tuus, non in se, nec in
 2SG.POSS NEG in REFL neither in
aliquo alio
 anywhere else
 'Zure zerbitzaria zugan pozten da, ez bere buruarengan, eta ez bertze inon ere' (Thomas à Kempisen *Imitatio Christi*, 3.50, K. o. XV. mendea)

König & Siemundek (2000, 117. or.), **se-/s(e)we-* izenordainaren islak egun ukraineraz duen portaera morfosintaktikoa ikusita, GAI batetik atera ote den aztertzen dute. Hau, edozein kasutan, ustekeria hutsa da, ukrainerako datuak berdin izan baitaitezke hizkuntza bakan horren berrikuntza. Ondorioz, ez dago indoeuropar hizkuntzetako bihurkari marka euskarazko *buru*-egiturarekin berdintzerik.

Horrela ikusita, ez du ematen hizkuntza indoeuroparrekiko edota latinarekiko uki-penak euskarazko *buru*-egitura bihurkariaren sorreran inolako eraginik izan duenik. Haatik, hemen bi kontu azpimarratu beharrak dira: alde batetik, eta aitzineko 1.1. atalean azaldu denez, ohikoa da munduko hizkuntzek bihurkaritasuna adierazteko egitura bat baino gehiago izatea. Bertze aldetik, latinak estrategia bihurkari nagusizat *mē(d)*, *tē(d)*, *nōs* formak (lehenbiziko eta bigarren pertsonan) eta **se-/s(e)we-* izenordain bihurkaria (hirugarren pertsonan) izateak ez du erran nahi inoiz bertzelako baliabide bigarrenkaririk izan ez duenik. Ikus Erdi Aroko latineko (3a-b) hurrengo adibideak (Ramos, 2000, 66. or.):

4 Euskara ez bertze hizkuntza orotako adibideen lerroarteko glosak *Leipzig glossing rules*-en (Bickel et al., 2015) arabera egin dira, ingelesezko itzulpenak eta laburpenak barne.

- (3) a. *trado meum caput vel vinea*
 trade.LSG.PRS 1SG.POSS head for vineyard
mea
 1SG.POSS
 'Neure burua neure ardantzearen truke aldatuko dut' (Valpuestako Andre Mariako kartularioak, XI. mendea)
- b. *kapite nostro ponemus ad*
 head.PL 1PL.POSS.PL place.1PL.PRS at
seruiendum atque martir-es tuo-s
 service.DAT as martyr-PL 2SG.POSS-PL
 'Geure buruak martiritako paratzen ditugu zure zerbitzuan' (Leongo katedrale artxiboko dokumentu bilduma, X. mendea)

Bihurkaritasuna adierazten duten bi adibideok garai bertuko testuetatik atereak dira. Hauetan *buru* (*caput*, *capita*) hitza da egitura bihurkariaren oinarri, hau da, biek GAIak darabiltzate, euskarak bezala. Gainera, lehen adibidea (3a) Hegoaldetik biziki hurran izkiriaria da, Gaztelaren eta Arabaren arteko mugan. Horrelako adibideak ez dira bakanak latinaren historian zehar, ugariak baizik, 2. atalean erakutsiko den moduan.

Hau jakinda, erraza da pentsatzea (3a-b) moduko adibideen eta euskarazko *buru* hitzean oinarrituriko egituraren artean nolabaiteko lotura izan daitekeela. Haatik, euskarak latinarekin historian barna izan duen erlazio asimetrikoa ezagututa, arazoizkoena *buru* duten egitura horien etorkia, barne-garapentako ez hartzekotan (ikus honen inguruan 3. atala), euskaratik kanpo bilatzea da. Ondorioz, hemen hurrengo hipotesia plazaratuko da: euskarak *buru* hitzaren erabilera bihurkariak latinarekiko ukipenaren ondorioz garatu zituen, Erdi Aroan, errepikapen gramatikalizazioa delako mekanismoaren bidez. Proposamen hau bermatzen duten adibide eta datu gehiago eztabaidatu aitzinetik, bihurkari marken gramatikalizazioaren eta errepikapen gramatikalizazioaren inguruko azalpena eginen da ondoko atalean.

1.3. Bihurkariak, ukipena, gramatikalizazioa eta errepikapen gramatikalizazioa

Hizkuntzalaritza orokorrean nahiko hedatuta dago ukipen egoerek hizkuntza al daketa bultzatzen eta azkartzen dutelako ustea (Thomason, 2001, 10. or.; Aikhenvald & Dixon, 2007, 19. or.). Gainera, egitura bihurkariak hizkuntza ukipenaren ondorioz errazen hedatzen diren ezaugarri gramatikalen artean daude (Geniušienė, 1987, 303. or.; Heine, 1999, 9-10. or.; Schladt, 2000, 107-108. or.). Ondorioz, erran daiteke hizkuntzalaritza orokorreko eta ukipen linguistikako datuek bihurkari marken jokatoldeaz erakusten dutenak lan honetako hipotesia bermatzen duela. Bi jakintza eremu horietan gehien ikertu den ataletariko bat, gainera, gramatikalizazioarena da.

Hemen gramatikalizazioak honako hau adierazten duela ulertzen da: balio lexikoa duen osagaiak bere gain ezaugarri gramatikalak hartzea, edota ezaugarri gramatikalak dituen osagaia are gramatikalago bihurtzea (Hopper & Traugott, 2003, 2. or.). Prozesu hau ulertzeko era honen arabera, gramatikalizazioak elkarrekin lotutako lau

mekanismo barne hartzen ditu: (i) *zuritze semantikoa*, hau da, osagaiak bere erranahi edukia galtzea; (ii) *hedatzea* edo *testuinguru orokortzea*, hots, osagaia testuinguru gehiagotan erabiltzea; (iii) *kategoriagabetzea* edo osagaiak ezaugarri morfosintaktikoak galtzea; eta (iv) *hots higadura*, osagaiak bere gorputza murriztea (Kuteva et al., 2019, 3. or.). Aurreko atalean azaldu den moduan, sarrien gertatzen den gramatikalizazio bideetako bat *GAIa > bihurkari marka* da. Hondarreko kasu honetan, gramatikalizazioko lau mekanismoek (i-iv) hurrengo urratsak (4a-c, 5a-d) dituzte (Schladt, 2000, 113-116. or.):

- (4) Aldaketa semantikoa
 - a. Lehen urratsa: *GAIa* perpauseko osagarri zuzena da, eta jatorrizko erranahia baizik ez du.
 - b. Bigarren urratsa: *GAIa* sinekdoke bidez berrinterpretatzen da, subjektuarekiko erreferentziakidetasuna hartu eta bihurkari bilakatzen da. Edozein kasutan, egiturak oraindik erranahi hitzez hitzekoa zein bihurkaria ukan ditzake.
 - c. Hirugarren urratsa: *GAIak* bakarrik irakurketa bihurkaria izan dezake, eta bertzelakoak ere gara ditzake, hala nola elkarkaria.
- (5) Aldaketa formala
 - a. Lehen urratsa: *GAIak* morfosintaxian (kasu-markatzean eta komunztaduran) eta sintaxian (hitz-hurrenkeraren askatasunean eta edute izenordainaren presentzian) izen sintagma osoaren portaera du.
 - b. Bigarren urratsa: *GAIak*, aukeran, ezaugarri morfosintaktiko eta sintaktiko murriztuak izan ditzake: komunztadura galtzea, hitz ordena zurruntzea, edutezko izenordaina desagertzea.
 - c. Hirugarren urratsa: *GAIak* nahitaez jokamolde sintaktiko murriztua du, hau da, subjektuaren erreferentziakidea izan behar du, perpausean funtzio bakarra izan dezake, eta ezin du hitz hurrenkera aldatu.
 - d. Laugarren urratsa: *GAIak* ez du, dagoeneko, izen sintagmaren ezaugarri morfosintaktikorik, eta izenordaintako har daiteke.

Oro har, bihurkarien gramatikalizazio urrats hauek (4a-c, 5a-d) izenetik hizkiranzko bidea erakusten dute, izenordaina dela bitarteko, eta hau da 1.1 atalean erakutsi den munduko hizkuntzetako bihurkari marken aniztasunaren arrazoia (Heine, 1999, 7. or.). Egile batzuek, gainera, gramatikalizazio bide honi anafora izateko urratsa gehitzen diote, hurrengo eran (Evseeva & Salaberri, 2018, 424. or.):

- (6) IZENA > ANAFORA > (IZENORDAIN) BIHURKARIA >
(IZENORDAIN) ELKARKARIA > HIZKIA

Aldaketa diakroniko hauen (4a-c, 5a-d, 6) banaketa ezagutzea biziki erabilgarria izan daiteke lan honetako hipotesia argitzen laguntzeko, euskarazko *buru*-bihurkarien gramatikalizazio maila eta, ondorioz eta hein batean, *adina* neurtzeko tresnatzat erabil daitekeelako. Salaberri Izok (2020, 24-25. or.) erakusten duen moduan, XVI-XX. mendeetako euskararen badira *buru*-egituraren erabilera anaforikoak. Bertze zenbait ezaugarriekin batean, honek adierazten du euskarazko *buru*-bihurkariak gramatikalizazio

bidearen hasieran daudela, euskara arkaikoan (1400-1600) batez ere⁵. Horrela bada, litekeena da prozesu honen sorrera Erdi Aroan izatea. Gai honi 2. eta 3. ataletan helduko zaio berriz.

Azkeneko hamarkadetako hizkuntza ukipenaren inguruko lanetan behin baino gehiagotan azpimarratu da kontaktu-egoerek hainbat osagaien gramatikalizazioa eragin dezaketela (Schladt, 2000, 107-108. or.). Ildo honetatik, gramatikalizazioaren hainbat azpimota bereizi dira: hemen horietako bat, *errepikapen gramatikalizazioa* (EGa) deitu zaiona, azalduko da (Heine & Kuteva, 2003)⁶. EGak, ukipen egoeran bakarrik sortzen den gramatikalizazioa izanik, gutxienez bi hizkuntza barne hartzen ditu: eredu-hizkuntza (E-hizkuntza), ukipen egoeran dauden bertze hizkuntzendako eredia ezartzen duena, eta errepikapen-hizkuntza (ER-hizkuntza), E-hizkuntzak ezarritako eredia jasotzen eta errepikatzen duena (Heine & Kuteva, 2003, 531. or.). EGan gramatikalizazio prozesu oso bat E-hizkuntzatik ER-hizkuntzara hedatzen da, hurrengo mekanismoen bitartez (Heine & Kuteva, 2003, 539. or., 2005, 92. or.; Ziegeler, 2017, 317. or.):

(7) Errepikapen gramatikalizazioa (EG)

- a. ER-hizkuntzaren hiztunek antzematen dute E-hizkuntzan badela gramatika kategoria jakin bat: Ex.
- b. Hiztunok E-hizkuntzakoaren baliokidea den kategoria (ERx) sortzen dute, beren hizkuntzako materiala erabiliz.
- c. Xede hau erdiesteko, E-hizkuntzan gertatu dela *uste duten* gramatikalizazio bidea errepikatzen dute, hurrengo formularen bidez: [Ey > Ex] = [ERY > ERx].
- d. ER-hizkuntzaren hiztunek ERY kategoria ERx gisa gramatikalizatzen dute.

Euskararen kasuan bada, hain zuzen ere, sarritan eztabaidatu den eta zalantza guti sortzen duen EGaren bertze adibidea: munduko hizkuntzetan hagitx hedatuta dagoen gramatikalizazio bideari jarraituz, Erdi Aroko erromantzeek, izenordain erakusleak oinarri hartuta, artikulatu mugatuak garatu zituzten. Erromantze hauetako batzuekin (gaskoierarekin eta gaztelaniarekin, batez ere) ukipen egoera hertsia jasatearen ondorioz, euskaraz **(h)a(r)* urruneko izenordain erakuslea *-a* artikulatu mugatu izatera gramatikalizatu zen. Labur erranda, Erdi Aroan erromantzeek izan zuten garapena euskarara hedatu zela uste da, ukipenaren ondorioz (Álvarez, 1977, 37. or.; Castaños, 1979; Haase, 1992, 59-61. or.; Manterola, 2015; Mitxelena, 1981, 305-306. or. bertzeak bertze).

Hau bera da lan honetan *buru*-bihurkarietara agitu zela proposatzen dena: Erdi Aroko latinean *caput*-ek, erabilera hitzez hitzekoekin eta anaforikoekin batean, bihurkariak ere izan zitzaizkeen (3a-b), gramatikalizazioaren kariatara. Eredu honi (E-hizkuntzari)

5 Euskararen banaketa historikoari begira, lan honek Lakarraren (1997, 516. or.) proposamena hartu du oinarri.

6 Usu bereizi den ukipen egoerekin lotutako bertze gramatikalizazio mota *ukipenak bideratutako gramatikalizazioa* da (Heine & Kuteva, 2005, 80-81. or.). Euskararen kasuan, horren adibiderik garbienetarikoa erromantzeekiko ukipenak bultzatutako aspektu burutugabe markaren sorrera da (Haase, 1992, 93-94. or.; Mounole, 2008, 586. or.).

jarraikiz euskarak, ER-hizkuntza izanik, *buru* hitzean oinarrituriko egitura bihurkaria gramatikalizatu zuen. Ondorioz, egungo euskararen egitura bihurkari nagusia Erdi Aroko latinaren ereduaren neurri bateko isla dela erran daiteke. Hipotesi hau bermatzen duten zenbait adibide eztabaidatuko dira hurrengo atalean.

2. ERDI AROKO LATINEKO DATUAK EUSKARAREN ARGITAN

Ikerketa honetarako aztertu den latinaren corpusak VI. eta XV. mendeen artean mendaldeko Europa osoan (egungo Alemanian, Erresuma Batuan, Espainian, Frantzia, Holandan, Italian, Polonian) idatzitako testuak hartzen ditu. Hainbat eratako iturriak izan dira kontuan, bertzeak bertze ohiko hiztegiak (Blaise, 1975; Latham, 1975; Migne, 1977 [1858]; Niermeyer, 1976; Stotz et al., 1959-2015), hiztegi etimologikoak (Ernout & Meillet, 2001; De Vaan, 2008), corpus digitalak (Quetglas & Gómez, 2019), testu edizioak (Barrau-Dihigo, 1900; Ramos, 2000) eta gai honetaz diharduten lanak (Pérez, 2007).

Lan honetan *Erdi Aroko latin* adierazpideak erromatar errepublikaren denboran mintzatzen zen hizkuntzari (honi *latin zaharra* deitzen ohi zaio), adarkatu aitzineko erromatar inperioko mintzaira nagusiari (*latin klasikoari*) eta dialektotan banatu ondorengoari (*latin berantiarrari*), hurrenez hurren, diakronikoki jarraiki zaion garaiko hizkera izendatzen du, hau da, gure aroko VI. eta XV. mendeen artean Europa osoan zehar hedatuta zegoena (Wright, 1982). Latin berantiarrak, zeina hain segur dagoeneko III. menderako dialektotan bereizia baitzegoen, inperioa desagertzearekin hizkuntza erromantze gazteei bide eman zien, ahoz behintzat (Väänänen, 1967). Haatik, kristautasuna Europan hedatzean latinak ordura arte erlijio hizkuntzarako eta gehienbat izkribatzeko ibiltzen zen grekoa ordezkatu zuen (Wright, 1982). Mintzaira hau, beraz, erromantzetan banatu eta gero ere idatziz erabili zen, segur aski hizkuntza sortu berriekin egoera diglosikoan, Erdi Aroaren bukaeraraino eta baita berantago ere. Zernahi ere den, honek ez du nahitaez adierazten latina Erdi Aroan mintzatzeari utzi zitzaionik. Kontu honi 5. atalean helduko zaio berriz.

Mitxelenak (1992, 674. or.), OEhko *buru* hitzaren sarreran, hurrengo dio: «en documentos latinos próximos al área vasca son frecuentes *hoc caput, meo capo*, etc. referidos al que habla». Euskararekin ukipenean zeuden Erdi Aroko latinaren aldaerek, beraz, *buru hau (bera)* eta *neure burua* erran nahi zuten egiturak erabiltzen bide zituzten perpau bereko subjektuari erreferentzia egiteko, hots, zentzu bihurkarian. Errenteriako hizkuntzalariak pasartean latineko adibiderik ematen ez badu ere, garai eta alderdi horretako latinean idatzitako testuei begiratua emateak haren oharra berresteko aukera ematen du: 1.2 atalean erakutsi den moduan, XII. mendeko Valpuestako (Burgos) Andre Maria kodexean, adibidez, *capo*-bihurkarien zenbait adibide (8a-b) ediren daitezke (Ramos, 2000, 66, 68, 78. or.)⁷:

⁷ Onomastika datuek adierazten dutenez, XII. mendean Valpuesta eremu euskaldunetik hurrant bide zegoen (Salaberrí Zaratiegi, 2018, 298-302. or.).

- (8) a. *ego Munnio Uincenti et usor mea*
 lSG Munnio Uincenti and wife lSG.POSS.F
Gertrueda tradimus nostros capos ad
 Gertrueda trade.lSG.PRS lSG.POSS.PL head.PL at
atrium Sancte Marie
 house Saint.GEN Mary.GEN
 'Nik, Munnio Uincentik, eta nire emazte Gertruedak geure buruak Andre Mariaren etxeari (elizari) uzten dizkiogu' (Valpuestako Andre Mariako kartularioak, ca. 1094)
- b. *ego Fredulfus episcopus sic conmendo*
 lSG Fredulfus bishop thus entrust.lSG.PRS
meo capo ad atrium Sancte Marie
 lSG.POSS head to house Saint.GEN Mary.GEN
 'Nik, Fredulfus apezpikuak, (hola) bada neure burua Andre Maria etxeari (elizari) uzten diot' (Valpuestako Andre Mariako kartularioak, ca. 1094)

Euskararen Erdi Aroko eremutik pixka bat urrunduz gero, Iberiar penintsulan gu-tienez bertze alderdi batean ediren daitezke *caput*, *capo* edota antzeko hitz formetan oinarritutako egitura bihurkariak; Asturiasen eta Gaztela-Leongo iparraldean, hain zuzen ere (9a-b, Pérez, 2007, 317. or.).

- (9) a. *kapite nostro ponemus ad*
 head.PL lPL.POSS.PL place.lPL.PRS at
seruiendum atque martir-es tuo-s
 service.DAT as martyr-PL 2SG.POSS-PL
 'Geure buruak martiritako paratzen ditugu zure zerbitzuan' (Leongo katedrale artxiboko dokumentu bilduma, 983)
- b. *omn-es sumus principe-s et duce-s*
 all-PL be.lPL.PRS prince-PL and duke-PL
capitum nostrorum
 head.GEN.PL lPL.POSS.GEN
 'Denok gara geure buruen printze eta duke' (*Chronica Adefonsi Imperatoris*, 208-218, 1157)

Erdi Aroko latinean *caput*-bihurkariak euskal eremutik hagitz hurran (Valpuestan) eta ez biziki urrun (Asturiasen eta Gaztela-Leongo iparraldean) edireteak hauen iturria euskararen ikustera eraman dezake ikertzaile zuhurra. Haatik, eta 1.2 atalean aipatu den euskararen latinarekiko erlazio asimetrikoa ahaztu gabe, aukera hau ezinezkotako hartzera bulkatzen duten adibideak kausitzen dira latinean. Izan ere, *caput*-bihurkariak ez daude Iberiar penintsulan bakarrik lekukotuta: testigantza bakanak Europako bertze alderdietan ere badira, hala nola egungo Frantzia (10a), Alemanian (10b) eta Erresuma Batuan (10c, Latham, 1975; Stotz et al. 1959-2015):

- (10) a. *se ille de caput suum bene ingenuus*
 if 3SG.M of head 3SG.POSS well honest
esse videtur
 be.INF seem.PASS
 'Bere buruz/burutik zintzoa izateko itxura baldin badu' (*Formulae Marculfi*, adibide merovingiarra (Paris-St. Denis), VII-VIII. mendeak)
- b. *caput meum in illorum protectionem*
 head 1SG.POSS.ACC in 3PL.POSS.ACC protection.ACC
ad clausuram collocavi
 at cloister.ACC place.1SG.PST
 'Neure burua beren babesean giltzapean ezarri nuen' (*Traditiones Frisingenses*, adibide bavariarra (Freising), VIII-XII. mendeen artekoa)
- c. *nec crederem capiti meo de*
 neither trust.1SG.PRS head.DAT 1SG.POSS.DAT of
expositione sensus litteralis
 exposition sense.GEN litteral.GEN
 'Neure buruaz ere ez naiz hitzez hitzeko zentzua adierazteko fidatzen' (John Wycliffen *Tractatus de benedicta incarnatione*, 65, ca. 1400)

Hartara, *caput*-bihurkariak euskararen eremuarekiko ukipen zuzenean ez dauden alderdietan kausitzeak *buru*-bihurkarien mailegatze-noranzkoa euskara > latina izateko aukera baztertzen du. Edozein kasutan, lan honetarako interesgarriak diren bertzelako adibideak ere ediren daitezke Erdi Aroko latinean. Hauetatik aipagarrienak *caput* hitzak zentzu bihurkaria ez, baizik eta anaforikoa erakusten dutenak dira (11a-b, Niermeyer, 1976, 141. or.; Pérez, 2007, 316. or.):

- (11) a. *reddant nichil amplius fiscalis*
 pay.back.3PL.PRS none more tax
ponderis pro debito sui capit-is
 burden for debt own.3SG.POSS head-GEN
exsoluentes
 free.PTCP.PRS.PL.GEN
 'Beren (beren buruaren) zorren truke ez dute zerga gehiago itzuliko' (Gra-defes monasterioko dokumentu bilduma I, 76.16, 1153)
- b. *dinarius quattuor de eorum capite*
 denarius four of 3PL.POSS head.PL.GEN
exactabant
 collect.3PL.PST
 'Haiei (haien buruei) lau denario kobratzen zizkieten' (*Diplomata Karolinorum*, I, ca. 800)

Adibide hauek (11a-b) lan honetako hipotesia bermatzeko oztopoa badute, alabaina: gaur egungo euskarazko *buru*-egitura ez bezala, ez dira bihurkariak, anaforikoak baizik. Zailtasun hau datu historikoen eta tipologikoen bidez gaindi daiteke: oroitu beharra dago, autore batzuen arabera, GAIEk erabilera anaforikoa hartzea bihurkari markaranzko gramatikalizazio bidean lehenbiziko urratsa dela (*cfr.* 1.3 atala). Beraz,

gramatikalizazio bide honek, teorian behintzat, aurreikusten du euskarazko *buru*-egitura bihurkaria izan baino lehen –edota izan bitartean⁸– anaforikoa izan zela. Hau bera da, hain zuzen ere, XVI-XX. mendeetan ikusten dena (12a-e):

- (12) a. hebetic ioan gabe ene buruya eguin vehar duçu ene nahia (Etxepare, 1980, 206. or.)
 b. ene buruya ciaydaçu harendaco abastu (Etxepare, 1980, 162. or.)
 c. ene bekhatuek iragan eta erdiratu dute ene burua (Axular, 2015, 277. or.)
 d. Aygalouni ene buria saldu uçhen behin (Oihartzabal, 1991, 888. or.)
 e. zergatik nire buruaren garbitasuna eskatzen didazu? (Orixe, 1929, 62. or.)

Esaldi hauetan *ene buruya* (12a-b), *ene burua* (12c), *ene buria* (12d) eta *nire buruaren* (12e) egiturek ez diote perpaus bereko osagaiari erreferentzia egiten, testuan lehenago aipatutakoei baizik. Horrela bada, *ni*, *nire* izenordain anaforikoen ordezkoko daudela erran daiteke, Erdi Aroko latineko lekukotasunetan (11a-b) *caput* hitza bezalaxe. Gisa honetako euskarazko testigantzak (12a-e) XVI-XX. mendeetako testuetan edireten dira eta, hortaz, ongi konpontzen dira *izena* > *anafora* > (*izenordain*) *bihurkaria* gramatikalizazio bidearen proposamenarekin: XX. mendearen erdialdetik aitzina desagertu egiten dira eta, ondorioz, gramatikalizazio katean urrats bat egin dutela erran daiteke⁹.

Haatik, honek erran nahi du egungo euskarako *buru*-egitura bihurkariak Erdi Aroko latinekoak baino gramatikalizatuago daudela, jatorrizko erabileretako bat (anaforikoa) galdu baitute. Lehen begiratuan egoera hau errepikapen gramatikalizazioaren kontra mintzatzen dela pentsa daiteke, eskuarki eredu-hizkuntzako egitura linguistikoa izaten baita gramatikalizatuena, ez errepikapen-hizkuntzako (Heine & Kuteva, 2005, 117-120. or.). Hala ere, euskararen eta egile hauek aipatzen dituzten kasuen –zeinak denak bizirik dauden hizkuntzen ingurukoak baitiren– arteko alderaketa ez da egokia, hemen eztabaidagai dugun ukipen-egoera historikoa baita, ez gaur egungoa, eta eredu-hizkuntza (VI-XV. mendeetako latina) aspaldi desagertua baita. Bertze modu batera erranda, Erdi Arotik honat euskarak hainbat mende izan ditu *buru*-egitura gramatikalizatzeke, eta latinak, berriz, ez.

Atal honi etsia emateko, bi puntu dira aipagarriak: lehenik eta behin, euskararen eremutik hurraren diren Erdi Aroko latineko testigantzen artean bakarrik Pirinioetatik hegoaldera edireten dira *caput* hitzaren zalantza izpirik gabeko erabilera bihurkariak. Bigarrenik, *buru* hitzaren erabilera anaforikoak gehienbat Iparraldeko testuetan (Axularren lanean, Etxeparerenean, pastoraletan) aurkitzen ditugu. Hau kasualitatea dateke menturaz, baina iradokitzen du Iparraldeko euskalkiek *izena* > *anafora* > (*izenordain*)

8 Osagai gramatikal berak (kasu honetan, euskarazko *buru* izenak) aldi berean gramatikalizazio bide bereko urrats bat baino gehiago (GAIA edo hitzez hitzekoa, anaforikoa eta bihurkaria) erakustea usaiakoa da hizkuntza aldaketan. Gertakari honi *geruzaztatzea* (*layering*) deitu ohi zaio (Hopper, 1991, 22. or.).

9 Euskal literaturaren historian *buru*-egituraren erabilera anaforiko berriagoak ere ediren daitezke, XX. mendearen bigarren erdian, hain zuzen ere (Mitxelena, 1988, 37, 170. or.). Zernahi dela, eta Arriagoitiak (2003, 624. or.) argudiatzen duenez, kasu horietan Mitxelena *buru*-egitura zentzu hanpatzailean erabiltzen ari da, ez anaforikoan.

bihurkaria gramatikalizazio bidea Hegoaldekoen ondotik eta, beraz, mantsoago edota geroago egin zutela. Ondorioz, pentsa daiteke egitura hau garatzen lehenak Hegoaldeko euskalkiak izan zirela, eta berrikuntza bertatik Iparraldera hedatu zela.

Buru-egitura bihurkariaren hedapen-proposamen honen paraleloa hiztegian ikus daiteke eta, zehatzago erran, *negu* hitzaren sorreran. Pentsatzen da lehenbiziko aldiz XIII. mendearen erdi-bukaeran lekukotzen den *negu* ekialdeko erromantzeren batetik mailegatua dela, menturaz bearnesetik edo katalanetik, hizkuntza hauetan *neu* «*elur*» ibiltzen baita (Lakarra et al., 2019, 553. or.). Honek erran nahi du hitz hori Erdi Aroan, euskalkiek oraino banaketa dialektal nabarmenik izan ez zuten garaian, aipatu erromantzeekin ukipen egoeran zegoen ekialdeko mintzoren batek mailegatu zuela. Alta, *negu* testu zaharrenetatik aitzina hitz orokorra denez, pentsatu beharra dago ekialdeko euskalkietatik gainerakoetara hedatu zela, beren arteko desberdintasunak desberdintasun. Ildo beretik, hemengo proposamenari jarraikiz pentsa liteke *buru*-egitura bihurkaria Hegoaldeko euskalkietatik sartu zela euskarari, eta hortik Iparraldera hedatu zela. Kontuan har bedi, hori bai, item lexikoak eta egitura sintaktikoak ez direla usaian modu berean mailegatzen (Thomason & Kaufmann, 1988, 77-83. or.). Proposamen honek euskararen historiarako izan ditzakeen ondorioak 4. atalean azalduko dira.

3. BURU-BIHURKARIAK ETA ALDAKETA SEMANTIKOA

Buru eta *caput* hitzek euskaraz eta Erdi Aroko latinez, hurrenez hurren, zentzu bihurkaria garatzearen arrazoia hobeki ulertzeko semantikarekin lotutako zenbait konturi begiratu beharra dago: lehenik eta behin, *buru* eta *gorputz* bezalako GAIEkin zenbait figura erretoriko, metafora eta metonimia batez ere, erabiltzea bereziki ohikoa omen da (Heine, 1997, 8. or.). Honen arrazoia hurrengo bide da: dirudienez, giza kognizioan ohikoa da gorputza atal prototipiko gutxi batzuetan banatzea¹⁰. Gorputzaren atal batzuk (*bizkarra*, *burua*, *begia*, *hanka*) bertzeak (*belauna*, *belarria*, *besapea*) baino prototipikoago ikusten omen dira. Horregatik, lehen taldeko GAIEk metonimia bidez gorputzaren osotasuna, eta metaforaren bidez bertzelako erranahiak (kokagunea espazioan eta denboran, adibidez) adierazteko aukera handiagoa dute. Ondorioz, munduko hizkuntzetan ohikoa da *buru* hitza polisemikoa izatea, baita hitz honek aldaketa semantikoa anizteta jasatea ere. Euskara ez da, ez lehenari ez bigarrenari begira, salbuespena.

Ildo honi jarraikiz, Ibarretxe-Antuñanok (2002, 470-486. or.) proposatzen du euskaraz *buru* hitzak dituen erranahiak sare lexiko jakin batean daudela antolatuta. Sare hau hiru adabegi nagusitan banatzen omen da, zeinetatik bakoitza (13a-c) bertzelako metonimia baten bidez adierazten den:

10 Hau da, bederen, semantika naturalean *prototipikotasun printzipio*ak baieztatzen duena (Geeraerts, 1985, 127. or.).

- (13) a. Osotasuna zatiaren ordez: *burua orraztu, buruz gora, mendiari buruz joan, ekonomiari buruz mintzatu, bururatu*
 b. Izakia tokiaren ordez: *ez bururik ez zangorik ez izan, buru batetik bertzera, buru eman, hiru egunen buruan, ateburuan, buru izan*
 c. Zatia osotasunaren ordez: *bertzeren buruan kalte ikusi, nork bere burua ikusi*

Hiru adabegi hauek islatzen dituzten metonimietatik hirugarrena (13c) da euskararen historian *buru* hitzaren erabilera anaforikoak (12a-e) sortzen zituena eta, dirudienez, bihurkaritasuneranzko gramatikalizazio bidea (6) ireki zuena. Hiru metonimiak biziki ohikoak badira ere, azkenaren ondorio diren erabilera anaforikoak ez daude, inola ere, horren hedatuta munduko hizkuntzetan: 1. atalean azaldu den moduan, *buru* hitzaren erabilera bihurkaria munduko hizkuntzen % 8,1ek (77/950) bakarrik dute (Evseeva & Salaberri, 2018, 395. or.).

Aldiz, *buru* zentzu anaforikoan darabilten hizkuntzak askoz ere gutiago dira oraindik. Gertakari hau erabat ongi ulertzen ez bada ere, oraino ezaugarri hau duten 40-50 bat hizkuntza, asko jota, atzeman dira, munduko 7.000 ingurutik (% 0,6-% 0,7). Euskaratik eta Erdi Aroko latinetik lekora, bertzeak bertze georgieraz (14a) eta ouargli berber hizkuntzan (14b) ediren dira halakoak (Biarnay, 1908, 313. or.; Amiridze, 2006, 183. or.):

- (14) a. *šen* *mas* *čem-s* *tav-s*
 2SG.NOM 3SG.DAT 1SG.POSS-DAT head-DAT
ø-u-xat'-av
 2SG.NOM-PRV-draw/paint-TS
 'Ni (neure burua) harendako marrazten nauzu'
 b. *ixef-es* *d* *lbgur*
 head-3SG.M.GEN AFF idiot
 'Ergela da (bere burua ergela da)'

Joera honen bakantasuna ikusita, kasualitate handiegia dirudi Erdi Aroan ukipen egoeran izan ziren bi hizkuntzak (garaiko latinak eta euskarak) *buru* hitzaren erabilera anaforikoak eta bihurkariak partekatzea. Hau are susmagarriago egiten da jakinda estrategia bihurkariak ukipen egoeran errazen mailegatzen diren gramatikako atalen artean daudela (Geniušienė, 1987, 303. or.; Heine 1999, 9-10. or.; Schladt, 2000, 110-111. or.). Dirudienez, susmo hau Mitxelenak (1992, 674. or.) bazeukan, bertzela ez zuen OEHko *buru*-ren sarreran latina aipatuko.

Datu hauetatik bi ondorio atera daitezke: alde batetik, latinak bere aldetik garatu zituen *buru*-bihurkariak, menturaz lehenagoko erabilera anaforikoetatik. Aldaketa hau ongi dokumentatua eta deskribatua da (Pérez, 2007, 311. or.):

Anatomic terminology is extremely profitable in the language, provided that man tends to project his body in the perception of space and other realities, a fact that brings about a figurative use of such terms, enriching in this way their semantic field.

Caput, *-is*, a noun of Indo-European origin, is a good example of that situation in the Latin language. Many other meanings were soon added to its proper sense, that is, the upper or front part of the body of all animals [...] The Latin Middle Ages [sic] inherited those meanings and added some new ones so that the term turned into one of the semantically richest in Medieval Latin.

Bertze aldetik, argia da euskarazko *buru* hitzak, latinarekiko ukipena goiti-beheiti, denboran zehar berezko garapena izan duela, Ibarretxe-Antuñanoren (2002) ikerketak erakusten duen moduan. Hartara, litekeena da bai kanpo-motibazioak (ukipenak), bai barne garapenak (aldaketa semantikoak) euskarazko bihurkarien gramatikalizazioan eragina eduki izana. Azken finean, hizkuntza aldaketan barneko zein kanpoko faktoreak aintzat hartzen dituzten azalpenak izan ohi dira egiantzekoenak, hainbat egileren arabera (Dorian, 1993; Igartua, 2019).

4. EUSKARAZKO EGITURA BIHURKARIEN HISTORIAZ ETA AITZIN-HISTORIAZ

Erabilerari dagozkion zenbait goiti-beheiti salbu (Mounole, 2011, 270. or.; Salaberri Izko, 2020), euskalki guztiek dute *buru*-egitura bihurkaritasuna adierazteko baliabide nagusi¹¹. Egitura hau, gainera, testurik zaharrenetatik egun arte dago lekukotuta. Hartara, eta euskararen gramatika historiko bakanez (Gorrotxategi et al., 2018; Igartua & Zabaltza, 2012; Trask, 1997) kontu hau eztabaidatzen ez badute ere, *buru*-bihurkariaren sorrerak Euskara Batu Zaharraren (EBZ) garaikoa edo hau euskalkitan banatzen hasi eta handik gutirakoa behar du izan. Era batera edo bertzera, beraz, Erdi Aroan gertatu bide den garapena da, eta hau ongi arranjatzen da latinarekiko ukipenaren hipotesiarekin. Datu hauei begira, orain arte munduko hizkuntzez ezaguna dena oinarri hartuta, bihurkaritasuna adieraztea ezaugarri unibertsala dela uste denez gero¹² (Geniušienė, 1987, 152. or.), honako galdera hau egin dezakegu: euskarak, *buru*-egitura gramatikalizatu aitzin, zer baliabide zuen bihurkaritasuna adierazteko?

Euskarak egun dituen bihurkari marketatik (1a-c), eta *buru*-egitura alde batera utzita, ez da lehen testigantzen aitzineko garairako iragangaiztea (1b) ez berreraikitzeke arrazoirik. Ikuspegi hau bermatzen duten bi zergatiko dira aipagarriak: alde batetik, aurreneko lekukotasunetatik egungo egoera arte euskararen aditz sistema errotik aldatu bada ere (Lakarra, 2018, 25. or.; Mounole, 2011, v. or.), bihurkaritasuna adierazteko aditza iragangaiztea testurik zaharrenetan eta hizkuntzaren historia idatzi osoan zehar aurki daiteke (15a-c):

11 Hau, batez ere, historiari begira da egia; egungo joera, gehienbat ahozko euskararen eta erromantzeak eraginda, iragangaiztearen erabilera biderkatzeranzkoa da (Euskaltzaindia, 1991, 63. or.).

12 Ohartu beharra dago (a) bihurkaritasuna adieraztea eta (b) bihurkaritasuna adierazteko baliabide bereziak izatea gauza bana direla, bai baitaude (b) bezalakorik ez daukaten hizkuntzak (Haspelmuth, 2008, 43. or.).

- (15) a. lohi eçarri vkan draut neure beguién gainera, eta garbitu naiz, eta ikusten dut (Leizarraga, 1990, 640. or.)
 b. eçagutcen dut, aitortcen, eta confessatcen leguesqui edireiten eta eracus-
 ten naicela hobèduri iaincoaren majestate offensatuaz (Pouvreau, 1664,
 74. or.)
 c. Andra Menina Arandañoco (zein zan bere lengusina) eracusi zan encargù
 onetan ondo debotèa eta fina (Zuloaga, 2015, 186. or.)

Bertze aldetik, eta batez ere Iparraldeko euskalkiei begira, iragangaiztea XVI. eta XVII. mendeetan egungo euskaran baino gehiagotan erabiltzen da bihurkaritasuna adierazteko (Mounole, 2011, 147. or.; Salaberri Izko, 2020, 23. or.). Maiztasuna aintzat edukirik, hizkuntza-aldaketan ezaugarri batek bertzea ordezkatzeko duenean, osagairik zaharrenaren agerraldiak denborarekin murrizten dira, desagertu edo gramatikaren bazterreko eremuetan fosilizatu arte (Bailey, 1973, 77. or.; Kroch, 2001, 720. or.). Hartara, eta –nahiz eta egungo ahozko hizkuntzan joera berriz ere gibeleratekoa izan– *buru*-bihurkariak neurri batean ordezkatu duela onartuz gero, pentsa daiteke lehenbiko testigantzen aurreko euskaran bihurkaritasuna adierazteko iragangaiztea hedatuta zegoela. Gauza bera erran daiteke (1c) moduko *bihurkari ahulez*: honelakoan testigantzak XVI-XVII. mendeetan ez dira gutitan kausitzen (16a-c):

- (16) a. eta nolaco baitaite hitz hau bakhotcharentçat, hau berori adituren du orduan beretçat (Etxeberri Ziburukoa, 1981, 174. or.)
 b. etzaretela bada arthatsu biharamunaz: ecen biharamunac beretaco artha vkanen du (Leizarraga, 1990, 301. or.)
 c. eçe berac içanen baitirade beretaco borrero cruelac (Berriain, 1626, 15. or.)

Azkenik, euskara arkaikotik lehenbiziko euskara modernorako bidean *guzti + -aul-ori* egituraren erabilera anaforikoak (17a-d) eta bihurkariak (17e) aurki daitezke men-
 debaldeko testuetan¹³.

- (17) a. arren, esaçu guztiau çurea nax ta erraz daguiquet (Bilbao et al., 2011, 77. or.)
 b. ene guztiau ceure eguin eguiçu (Bilbao et al., 2011, 151. or.)
 c. vaquiçu zurea orain gustiau naçana (Sarasola, 1983, 88. or.)
 d. ara emen neu guztijau ceuria, artu naguizu, salba naguizu (Olaetxea, 1787 [1763], 109. or.)
 e. baneroean echurea, chitez guztiau galduric (Lazarragaren B eskuizkribua)¹⁴

Laburbilduz, Behe Erdi Aroan *buru*-egitura hizkuntza-ukipenaren ondorioz gramatikalizatu aurretik ere, ematen du euskarak, hizkuntza-tipologiaren argitan, bihurkaritasuna adierazteko egungoa bezain sistema konplexua, hots, hiru baliabidek (iragangaizteak, *bihurkari ahulek* eta *guzti + izenordain erakuslea* egiturak) osaturikoa zuela. Lan honetan azaldutako datuek, gainera, aurreko zenbait lanetakoekin

13 Eneko Zuloaga, ahozko adierazpena.

14 Hemen eskuragarri: <https://klasikoak.armiarma.eus/lazarraga/trans055.htm>.

batera (Sarasola, 1979; Mounole, 2011; Evseeva & Salaberri, 2018; Salaberri Izko, 2020), euskaraz bihurkaritasuna adierazteko izan diren baliabideen kronologia ezarzteza ahalbidetzen dute:

- (18) Euskarazko bihurkarien kronologia
- a. Behe Erdi Aroa arte: iragangaiztea, *bihurkari ahulak*, *guzti + izenordain erakuslea* egitura (azkena mendebaldean bakarrik (?)).
 - b. Behe Erdi Aroa: *buru*-egitura bihurkariaren sorrera, latinarekiko ukipena dela eta, errepikapen gramatikalizazioz eta hedapen semantikoz.
 - c. XVI-XVIII. mendeak: *guzti + izenordain erakuslea* egituraren gainbehera.
 - d. XVIII. mendea: edutezko izenordain bihurkarien eta ohikoen arteko bereizketa (Linschmann-Aresti legea) euskalki gehienetan galtzea.
 - e. XIX-XXI. mendeak: iragangaiztearen pixkanakako murriztapena (idatziz bakarrik), *buru*-ren eta aditzaren arteko pluraleko numero komunztadurak nahitaezotasuna galtzea, *buru*-egituraren erabilera anaforikoen azkeneko lekukotzeak.

Datuok, alde batetik, Erdi Aroko euskararen ikuspegi garbiagoa ematen dute, orain arte egin diren proposamenek (Reguero, 2012; Salaberri Zaratiegi, 2018) kontuan hartu ez duten gramatikaren alderdia azaltzen dutelako. Bertze aldetik, euskararen historia argitzeari ekarpena egiten diote, *buru*-bihurkarien garapena ez baita gramatika historikoe-tan (Gorrotxategi et al., 2018; Igartua & Zabaltza, 2012; Trask, 1997) aintzat eduki.

5. ERDI AROKO EUSKAL EREMUKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAZ

Aitzineko ataletan argudiatu da euskarak *buru*-egitura bihurkaria, hedapen semantikoarekin batera, Erdi Aroko latinarekiko ukipenaren ondorioz eta *errepikapen gramatikalizazioa* delako mekanismoaren bitartez garatu bide zuela. Bi hizkuntzen arteko paralelo linguistikoek hala iradokitzen badute ere, proposamen honek ikuspuntu sozilinguistiko historikotik bi zailtasun ditu: lehenik, 2. atalean azaldu den moduan Erdi Aroan latina idatzizko hizkuntza bide zen, eta zaila dirudi idatzizko hizkuntza batek garai berean ia bakarrik ahozkoa zen euskararen eragina izateak. Bigarrenik, biztanle garaikide gehienek ez bide zekiten irakurtzen eta, hartara, latina ez zuten ezagutzen (Monteano, 2017, 14. or.).

Bi zailtasunei kontrako argudioak ematen ahal zaizkie: lehenari begira, Erdi Aroko euskal eremuko egoera sozilinguistikoaz arrunt guti dakigu (Lacarra, 1957, 12. or.), eta egile batzuek baieztatu dute garai eta alderdi horretan latina ez zela bakarrik idatzizko hizkuntza. Wrightek (1982, ix. or.) dioenez, «[i]n and after the twelfth-century Renaissance, there can be no doubt that Latin was taught, learnt, read, written, and at times spoken, as a conceptually distinct language from medieval Catalan, Portuguese, Sicilian, etc.». Hartara, ez da erabateko ziurtasunez baieztatzen ahal Behe Erdi Aroko euskal eremuan latina eta euskara ukipen egoeran ez zeudenik. Egia erran, kontrakoa da egile batzuek argudiatu dutena: «[t]ras el latín de época clásica, influyeron luego sobre el euskera el latín medieval y el eclesiástico» (Núñez, 2002, 20. or.).

Bigarren zailtasunari dagokionez, Erdi Aroko euskaldun gehienek latina ez ezagutzeak ez dio ukipen egoerari aterik ixten. Izan ere, litekeena da garai hartan latina gizarteko talde bakan batzuek bakarrik, konparazione erlijio-gizonek eta letratuek, jakin izatea. Lanbide hauek zituztenak bide ziren, beraz, ukipenaren gunea osatzen zuten Erdi Aroko euskara-latin elebidunak edo, erromantzeen erabilera kontuan hartuz gero, eleaniztunak. Hau bera iradokitzen du euskarazko eremutik hurbilen gelditzen diren *caput* hitzaren erabilera anaforikoak eta bihurkariak (3a, 8a-b) Valpuestako Andre Mariako kartularioetan edireteak, hau da, erlijio gizonek izkribatu zituzten testuetan.

Hizkuntza-aldaketaren alderdi soziolinguistikoari begiratu dioteneke hiru aldaketa mota bereizten dituzte: (i) *berezkoa*, hau da, hiztun-talde elebakarrek kanpoko inolako eraginik gabe egiten duten aldaketa; (ii) *mailegatzea*, hau da, bi hizkuntza edo gehiago ukipen egoeran daudenean bietako baten ama hiztunek bertze hizkuntzaren ezaugarriren bat apropos edo, gutienez, ezagueraz berenera ekartzea; eta (iii) *inposatzea*, hots, bigarren hizkuntza ikasten ari diren hiztunek beren ama hizkuntzaren ezaugarriak bigarreneira eramatea. Sailkapen hau 1. taulan ikus daiteke (Guy, 1990, 48. or.; Labov, 1966, 238. or.):

1. taula. Hizkuntza-aldaketaren mota soziolinguistikoak (Guy, 1990, 48. or.)

Jatorria	Aldaketa motak		
	Barnetik bideratua	Kanpotik bideratua	
Aldaketa mota	Berezkoa	Mailegatzea	Inposatzea
Bertzelako izenak	Naturala, beheitikakoa	Apropos egina, goitikakoa, hizkuntza jasotzaileak bultzatua	Substratua, iturriko hizkuntzak bultzatua
Ukipenik badea?	Ez	Bai	Bai
Bideratzaileak	Ama-hiztunak	Ama-hiztunak	Hiztun berriak

Wrighti (1982, ix. or.) eta Núñezi (2002, 20. or.) Erdi Aroko euskal eremuan euskararen eta latinaren arteko ukipena izan zela sinesteak *berezko* aldaketa gertatu izateko aukera murrizten du, nahiz eta honek barne-aldaketaren mekanismoa (hedapen semantikoa) erabat baztertzen ez duen (ikus 3. atala). Honetaz gain, garai hartan latina ez zuen, hain segur, euskal gizartearen atal handi batek bigarren hizkuntzatarako ikasten eta, hartara, *inposatzea* gertatu izanak ez du egiantzekoa ematen. Ondorioz, hemen eztabaidagai dugun aldaketa, gorago aipatu argudioak onartuz gero, hirugarren erakoa bide da: *mailegatzea* edo *goitikakoa*.

Proposamen hau bat dator aldaketa mota honetaz dakigunarekin, goitikako aldaketak klase sozial altuko hiztun helduek (kasu honetan, erlijio-gizonek edota letratuek) prestigio eta estilo-kontuek bultzatuta bideratzen ohi baitituzte (Guy, 1990, 52. or.), eta idatzizko hizkuntzek (kasu honetan, Erdi Aroko latinak) prestigioa izaten baitute (Janda & Joseph, 2003, 16. or.). Thomason & Kaufmanek (1988, 78. or.) dioten moduan, «minor structural influence from a prestigious literary language sometimes occurs through the written medium alone, without actual oral bilingualism among

borrowing-language speakers». Oroit bedi hemen, gainera, estrategia bihurkariak ukipen egoeran errazen mailegatzen diren gramatikako atalen artean daudela (Geniušienė, 1987, 303. or.; Heine 1999, 9-10. or.; Schladt, 2000, 110-111. or.).

Argudio hauek lan honetako proposamena sinesgarriago egiten laguntzen badute ere, Erdi Aroko euskal eremuko egoera soziolinguistikoz dugun ezagutza urriak ikerketa gehiago behar duen hipotesizat ikustera bultzatu behar gaitu. Gainera, hemen datu linguistikoak izan ditugu aztergai, eta gure iritziz datu soziolinguistikoek hizkuntzazkoak azaltzen lagundu beharko lukete, ez alderantziz.

6. ONDORIOAK

Lan honetan, munduko hizkuntzen datuak oinarri hartuta, erakutsi da euskara Europan *buru* hitzean oinarritutako egitura bihurkaria duen hizkuntza bakanetakoa dela. Hau, joera tipologiko unibertsalei ez ezik, hizkuntza-ukipen egoera historikoari ere zor zaiola proposatu da. Zehazkiago erran, euskarak *buru*-bihurkaria latinarekiko ukipenari zor diola adierazi da, eta prozesu hau errepikapen gramatikalizazio delakoaren bidez gertatu zela. *Buru*-egituraren iturriari begira, Behe Erdi Aroko latinetik Hegoaldeko euskarara zabaldu zatekeen, eta hortik, denbora tarte ez oso luzean, gainerako euskalkietara, Iparraldekoetara azkenik, hipotesirik sinesgarrienaren arabera betiere. Proposamen hau kontuan izanik, bihurkaritasuna adierazteko baliabideek euskararen historian izan duten garapenaren kronologia, eta euskarak Erdi Aroan ukan dituzkeen bihurkaritasuna bideratzeko eskuartearen ikuspegia aurkeztu dira. Ikuspegi soziolinguistikotik begiratuta, lan honetan plazaratu hipotesia ukipen egoerako mailegatzeaz dakigunarekin bat datorrela argudiatu da. Azkenik, datu hauek aurrerantzean euskararen (aitzin-)historia berantiarra deskribatzeko saioa egiten duten lanek kontuan hartu beharko lituzketela nabarmendu da.

7. ERREFERENTZIAK

- Aikhenvald, A. & Dixon, R. (2007). *Grammars in contact: a cross-linguistic typology*. Oxford: Oxford University Press.
- Álvarez, J. L. (1977). L'emploi de l'indéfini en souletin. *FLV*, 25, 29-54.
- Amiridze, N. (2006). *Reflexivization strategies in Georgian* (doktore tesia). Universiteit Utrecht, Utrecht.
- Ariel, M. (2008). *Pragmatics and grammar*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Artiagoitia, X. (2003). Reciprocal and reflexive constructions. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (607-632. or.). Berlin & New York: Mouton de Gruyter. DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110895285.607>
- Axular. (2015). *Gero* (B. Urgellen edizioa). Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Bailey, C. (1973). *Variation and linguistic theory*. Washington: Center for Applied Linguistics.

- Barrau-Dihigo, L. (1900). Chartes de l'église de Valpuesta du IX^e au XI^e siècle. *Revue Hispanique*, 24, 273-389.
- Beriain, J. (1626). *Doctrina christiana escrita en romance y bascuence*. Iruñea: Carlos de Labayen.
- Biarnay, S. (1908). *Étude sur le dialecte berbère de Ouargla*. Paris: Ernest Leroux.
- Bickel, B., Comrie, B. & Haspelmath, M. (2015). *Leipzig glossing rules*. <https://www.eva.mpg.de/lingua/resources/glossing-rules.php> helbidetik eskuratua.
- Bilbao, G., Gómez, R., Lakarra, J. A., Manterola, J., Mounole, C. & Urgell, B. (arg.). (2011). *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.2)*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea. <http://lazarraga.com/> helbidetik eskuratua.
- Blaise, A. (1975). *Dictionnaire latin-français des auteurs du Moyen-Âge*. Turnhout: Brepols.
- Bottineau, D. & Roulland, D. (2007). Le problème de la réflexivité en basque. In A. Rousseau & D. Roulland (arg.), *L'énoncé réfléchi* (208-225. or.). Rennes: Presses Universitaires de Rennes.
- Castaños, F. (1979). *La formación del plural en la lengua vasca*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- De Rijk, R. (2008). *Standard Basque: a progressive grammar*. Cambridge & Londres: Massachusetts Institute of Technology Press.
- De Vaan, M. (2008). *Etymological dictionary of Latin and the other Italic languages*. Leiden & Boston: Brill.
- Dorian, N. C. (1993). Internally and externally motivated change in language contact settings: Doubts about dichotomy. In C. Jones (arg.), *Historical linguistics: problems and perspectives* (131-155. or.). Londres: Longman.
- Ernout, A. & Meillet, A. (2001). *Dictionnaire étymologique de la langue latine: histoire des mots* (laugarren edizioa). Paris: Klincksieck.
- Etxeberri Ziburukoa, J. (1981). *Manual devotioezcoa* (P. Altunaren edizioa). Bilbo: Euskaltzaindia & Ediciones Mensajero.
- Etxepare, B. (1980). *Linguae vasconum primitiae* (P. Altunaren edizioa). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Etxepare, R. (2003). Valency and argument structure in the Basque verb. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (363-425. or.). Berlin & New York: Mouton de Gruyter. DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110895285.363>
- Euskaltzaindia. (1991). *Euskal gramatika lehen urratsak-I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Evseeva, N. & Salaberri, I. (2018). Grammaticalization of nouns meaning «head» into reflexive markers: a cross-linguistic study. *Linguistic Typology*, 22(3), 385-435. DOI: <https://doi.org/10.1515/lingty-2018-0014>
- Faltz, L. (1977). *Reflexivization: a study in universal syntax* (doktore tesia). University of California, Los Angeles.
- Geeraerts, D. (1985). Cognitive restrictions on the structure of semantic change. In J. Fisiak (arg.), *Historical semantics - historical word formation* (127-154. or.). Berlin & New York: Mouton de Gruyter. DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110850178.127>
- Geniušienė, E. (1987). *The typology of reflexives*. Berlin & New York: De Gruyter.
- Gorrotategi, J., Igartua, I. & Lakarra, J. A. (arg.). (2018). *Euskararen historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

- Guy, G. R. (1990). The sociolinguistic types of language change. *Diachronica*, 7(1), 47-67.
- Haase, M. (1992). *Sprachkontakt und Sprachwandel im Baskenland: die Einflüsse des Gaskognischen und Französischen auf das Baskische*. Hamburgo: Helmut Buske.
- Haiman, J. (1983). Iconic and economic motivation. *Language*, 59(4), 781-819.
- Haspelmath, M. (2008). A frequentist explanation of some universals of reflexive marking. *Linguistic Discovery*, 6(1), 40-63. DOI: <https://doi.org/10.1349/ps1.1537-0852.a.331>
- Heine, B. (1997). *Cognitive foundations of grammar*. Oxford: Oxford University Press.
- Heine, B. (1999). Polysemy involving reflexive and reciprocal markers in African languages. In Z. Frajzyngier & T. Curl (arg.), *Reciprocals: forms and functions* (1-29. or.). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. DOI: <https://doi.org/10.1075/tsl.41.02hei>
- Heine, B. & Kuteva, T. (2003). On contact-induced grammaticalization. *Studies in Language*, 27(3), 529-572. DOI: <https://doi.org/10.1075/sl.27.3.04hei>
- Heine, B. & Kuteva, T. (2005). *Language contact and grammatical change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Hopper, P. (1991). On some principles of grammaticalization. In E. Traugott & B. Heine (arg.), *Approaches to grammaticalization, vol. 1. Focus on theoretical and methodological issues* (17-35. or.). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Hopper, P. & Traugott, E. (2003). *Grammaticalization*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Ibarretxe-Antuñano, I. (2002). The conceptual structure of Basque *buru* «head». *FLV*, 91, 463-492.
- Igartua, I. (2019). Loss of grammatical gender and language contact. *Diachronica*, 36(2), 181-221. DOI: <https://doi.org/10.1075/dia.17004.iga>
- Igartua, I. & Zabaltza, X. (2012). *Euskararen historia laburra*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.
- Janda, D. & Joseph, B. D. (2003). On language, change, and language change - or, of history, linguistics, and historical linguistics. In B. D. Joseph & R. D. Janda (arg.), *The handbook of historical linguistics* (3-180. or.). Oxford: Blackwell. DOI: <https://doi.org/10.1002/9780470756393.ch>
- Kazenin, K. (2001). Verbal reflexives and the middle voice. In M. Haspelmath, E. König, W. Oesterreicher & W. Raible (arg.), *Language typology and language universals: an international handbook, vol. 2* (916-927. or.). Berlin & New York: Mouton de Gruyter. DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110171549.2.10.916>
- König, E. (2007). Vers une nouvelle typologie des marques réfléchies. In A. Rousseau, D. Bottineau & D. Roulland (arg.), *L'énoncé réfléchi* (107-129. or.). Rennes: Presses Universitaires de Rennes.
- König, E. & Siemund, P. (2000). Intensifiers and reflexives: a typological perspective. In Z. Frajzyngier & T. Curl (arg.), *Reflexives: forms and functions* (41-74. or.). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.

- König, E. & Vezzosi, L. (2004). The role of predicate meaning in the development of reflexivity. In W. Bisang, N. P. Himmelann & B. Wiemer (arg.), *What makes grammaticalization? A look from its fringes and its components* (213-244. or.). Berlin & New York: Mouton de Gruyter.
- Kroch, A. (2001). Syntactic change. In M. Baltin & C. Collins (arg.), *The handbook of contemporary syntactic theory* (699-729. or.). Londres: Blackwell. DOI: <https://doi.org/10.1002/9780470756416.ch22>
- Kuteva, T., Heine, B., Hong, B., Long, H., Narrog, H. & Rhee, S. (2019). *World lexicon of grammaticalization* (bigarren edizioa). Cambridge: Cambridge University Press. DOI: <https://doi.org/10.1017/9781316479704>
- Labov, W. (1966). *The social stratification of English in New York City*. Arlington: Center for Applied Linguistics.
- Lacarra, J. M. (1957). *Vasconia medieval: historia y filología*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Lakarra, J. A. (1997). Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU*, 31(2), 447-535.
- Lakarra, J. A. (2005). Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco. *Acta Palaeohispanica*, 9, 407-470.
- Lakarra, J. A. (2018). Euskararen historiaurrea. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (23-230. or.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Lakarra, J. A., Manterola, J. & Segurola, I. (2019). *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Latham, R. E. (1975). *Dictionary of Medieval Latin from medieval sources, vol. 1. A-B*. Oxford: Oxford University Press.
- Lehmann, C. (2015). *Thoughts on grammaticalization* (hirugarren edizioa). Berlin: Language Science Press.
- Leizarraga, J. (1990). *Iesus christ gure iaunaren testamentu berria, othoitzza ecclesiasticoen forma, catechisimea, kalendrerera, ABC edo christinoen instructioneoa* (T. Linschmannen eta H. Schuchardten edizioa). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Manterola, J. (2015). *Euskararen morfologia historikorako: artikuluak eta erakusleak* (doktore tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU, Gasteiz.
- Migne, J. (1977 [1858]). *Lexicon manuale ad scriptores et infimae latinitatis*. Paris: Jacques Migne.
- Mitxelena, K. (1963). *Lenguas y protolenguas*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea.
- Mitxelena, K. (1964). *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Auñamendi.
- Mitxelena, K. (1981). Lengua común y dialectos vascos. *ASJU*, 15, 289-313.
- Mitxelena, K. (1988). *Euskal idazlan guztiak* (P. Altunaren, B. Urgellen eta I. Sarasolaren edizioa). Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Mitxelena, K. (1992). *Orotariko euskal hiztegia, vol. 5. Berr-Daf*. Bilbo: Desclée de Brouwer, Euskaltzaindia & Mensajero.
- Monteano, P. (2017). *El iceberg navarro: euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*. Iruñea: Pamiela.
- Mounole, C. (2008). Perifrasi zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria. *ASJU*, 41(1), 67-138.

- Mounole, C. (2011). *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique* (doktore tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.
- Niermeyer, J. (1976). *Mediae latinitatis lexicon minus: a Medieval Latin-French/English dictionary, vol. 1*. Leiden: Brill.
- Núñez, L. (2002). *El euskera arcaico: extensión y parentescos*. Tafalla: Txalaparta.
- Nunn, H. P. V. (1922). *An introduction to Ecclesiastical Latin*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Oihartzabal, B. (1991). *La pastorale souletine: édition critique de Charlemagne*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Oihartzabal, B. & Etxepare, R. (2011). The absence of person-case constraints in early Lapurdian. In J. A. Lakarra, J. Gorrotxategi & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren II biltzarra* (149-169. or.). Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Olaetxea, B. (1787) [1763]. *Cristinauben dotrinia* (laugarren edizioa). Tolosa: Francisco de Lama.
- Orixe. (1929). *Santa Cruz apaiza*. Donostia: Iñaki Loiola.
- Pérez, E. (2007). *Caput* in the Medieval Latin from Asturias and León. *Listy Filologické*, 130(3/4), 311-328.
- Pouvreau, S. (1664). *San Frances de Sales Genevaco ipizpicvaren philothea*. Paris: Claude Audinet.
- Puddu, N. (2005). *Riflessivi e intensificatori: greco, latino e le altre lingue indoeuropee*. Pavia: Università di Pavia.
- Quetglas, P. & Gómez, A. (2019). *Corpus documentale latinum Cataloniae*. <http://gmlc.imf.csic.es/codolcat/helbidetik/eskuratua>.
- Ramos, E. (2000). *Los cartularios de Santa María de Valpuesta: análisis lingüístico*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Reguero, U. (2012). Erdi Aroko euskararen historia kanpotik eta barnetik. *ASJU*, 46(2), 63-160.
- Salaberri Izko, I. (2019). Euskarazko bihurkarien historiaz: hizkuntza ukipena eta errepikapen gramatikalizazioa. *Euskera*, 64(2), 651-682.
- Salaberri Izko, I. (2020). Grammaticalization of reflexivity in Basque: a corpus-based diachronic and typological analysis. *Journal of Historical Linguistics*, 10(1), 1-41. DOI: <https://doi.org/10.1075/jhl.18036.sal>
- Salaberri Zaratiegi, P. (2018). Euskara Erdi Aroan. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (287-344. or.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Sarasola, I. (1979). *Nire/neure, zure/zeure* literatur tradizioan. *Euskera*, 25(2), 431-466.
- Sarasola, I. (1983). Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. *ASJU*, 17, 69-212.
- Schladt, M. (2000). The typology and grammaticalization of reflexives. In Z. Frajz yngier & T. Curl (arg.), *Reflexives: forms and functions* (103-124. or.). Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Stotz, P., Selig M., Aris, M., Cardelle de Hartmann, C., Fiedler, M., Gneuss, H., Krefeld, T., Leithe-Jasper, H., Weber, M. & Wellhausen, A. (1959-2015). *Mitellateinisches Wörterbuch bis zum ausgehenden 13. Jahrhundert*. <http://woerterbuchnetz.de/MLW/helbidetik/eskuratua>.

- Szent-Ivány, B. (1964). *Der ungarische Sprachbau: eine kurze Darstellung mit Erläuterungen für die praxis*. Leipzig: VEB Verlag Enzyklopädie.
- Thomason, S. (2001). *Language contact*. Edinburgh: Edinburgh University Press.
- Thomason, S. & Kaufman, T. (1988). *Language contact, creolization, and genetic linguistics*. Berkeley, Los Angeles & Londres: University of California Press.
- Trask, R. (1997). *The history of Basque*. Londres: Routledge.
- Väänänen, V. (1967). *Introducción al latín vulgar* (M. Carriónen itzulpena). Madrid: Gredos.
- Viti, C. (2009). Anaphorische und reflexive Strukturen im Altgriechischen und im Lateinischen. *Indogermanische Forschungen*, 114, 143-172. DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110209006.143>
- Weiss, M. (2009). *Outline of the historical and comparative grammar of Latin*. Ann Arbor & New York: Beech Stave Press.
- Wright, R. (1982). *Late Latin and early Romance in Spain and Carolingian France*. Liverpool: Francis Cairns.
- Ziegeler, D. (2017). Historical replication in contact grammaticalization. In D. Van Olmen, H. Cuyckens & L. Ghesquière (arg.), *Aspects of grammaticalization: (inter)subjectification and directionality* (311-352. or.). Berlin & Boston: Mouton de Gruyter. DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110492347-012>
- Zuloaga, E. (2015). Diego Lorenzo Urkizuren 1740ko zortzikoak. *ASJU*, 49(1/2), 179-201. DOI: <https://doi.org/10.1387/asju.18814>

